

Santa Kruz, gerrileroa

Deia, 1983-07-29.

Gerra denbora hartan esaten zen Lizarraga eta Santa Kruz, ofizioz eta izaeraz zeharo ezberdinak zirela: Lizarraga, arau-estuko militarra, eta Santa Kruz, berriz, gerrileroarenak berezko zituena; Lizarraga zela apaiz izan behar zukeena, eta Santa Kruz, militarra.

Militarra izan ezin eta gerrileroa izan zen.

Honen armak, makila eta bere gizonen mirespen itsua.

Menperik ezin zuen jasa; Conde Rodeznoren kritikei erantzuterakoan, historialari euskaldun eta karlista zen Roman Oiartzunek dion bezala: "Santa Kruz, eusko mendiek emandako fruitua da, garoa eta txara bezala; zer litzateke karlismoa euskaldunik gabe?".

Apaiza, 1872garrengo abenduan hasi zen taldea eratzen, herriz herri eta banan bana mutilak aukeratzen; Oiartzunen hartu zituen ezagunenak; Anoeta aldean zebilen; bertako alkateak espioi bidez bota zuen abisua, eta apaizaren mutilak bidean harrapatu; alkatea lotu eta oinez zeramatela apezetxearen aurretik pasatzerakoan alkateak ez zuen pausorik eman nahi izan; Santa Kruzek esan zion bihotz-damua egiteko, eta mutilen eskuetan utzi zuen, horiek fusilatu zuten. Tolosako nazionalak heldu eta konfidentea apaizaren etxe aurrean hila ikusi zutenean, apaiza bera hartu, Tolosara eraman eta baionetaz kalean hilda utzi zuten: 1873garrengo urtarrilak 12.

Hau zen gerra zibileko partaideen harreman itsu eta izugarria.

Horiek izan zuten ondorengorik 1936garrengoan!

Antonio Lizarraga, Gipuzkoako karlisten buruzagia, plantatu zitzaion aurrean. Honetaz Santa Kruzen isilmandatari eta lagun izan zen Felix Murgiondo jaunak idatzitako memorietan zionez: Apaizaren helburu bakarra honek osatutako taldearen buru jarraitzea zen baina Lizarraga eta honen lagunek, bizirik edo hilik baztertu nahi zuten, apaiza zelako; 1873garrengo martxoan Lizarragak errebelde bezala aldarrikatu zuen; erabaki honek ematen zion edozeini apaiza nonahi fusilatzeke eskubidea. Arazoak, karlistak elkarren aurka jarri zituen; konponketa bila ibili ziren; ezagunenetako bat Andoaingo Sorabilan apaiz zegoen Patrizio Orkaiztegi izan zen; bazirudien gauzak konponbidean zihoazela: apaizak, generalari menpe aitortzen zion ofizioa idatzi ere egin zuen, baina Lizarragak ez zion barkatzen; Lekunberrin ikusi ziren elkar, baina alferrik.

Santa Kruz mindu zuten Lizarragaren mesprezuek, eta Endarlatzako hilketarekin erantzun zion; honek gainezkadura handia sortu zuen, eta ez hemen bakarrik, baita Frantzia (mugako arazoa izan baitzen!) eta Ingalaterra ere.

Hemendik aurrerakoak alperrikakoak izan ziren.